



**AZAROA**  
**2023**  
**11 zk.**

EUSKO JAURLARITZA




GOBIERNO VASCO




ZERGA ARAUDIAREN GAURKOTASUNA

**EKONOMIA ETA OGASUN SAILA**  
**ZERGA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARITZA**



**ALHAO**  
ARABAKO LURRALDE  
HISTORIKOAREN  
ALDIZKARI OFIZIALA

ALHAO — 131 zk. — 2023/11/08 — (SZ, E-EEZ) — 

FORU GOBERNU KONTSEILUAREN 46/2023 FORU DEKRETUA, URRIAREN 31KOA. ONESTEA INTERES OROKORREKO 2023RAKO XEDEEN EREMUKO LEHENTASUNEZKO MEZENASGO JARDUEREN EDO PROGRAMEN ZERRENDA, BAT ETORRIZ IRABAZTEKO XEDERIK GABEKO ENTITATEEN ZERGA ARAUBIDEARI ETA MEZENASGORAKO ZERGA PIZGARRIEI BURUZKO ABENDUAREN 23KO 35/2021 FORU ARAUAK EZARRITAKOAREKIN.

Irabazteko xederik gabeko entitateen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 35/2021 Foru Arauak arautzen du nola parte hartu behar duen sektore pribatuak lehentasunezko mezenasgo jarduerak eta programak finantzatzen.

Hain zuzen ere, foru arau horren 31. artikulua 1. apartatua dio Arabako Foru Aldundiak zehaztuko duela ekitaldi bakoitzeko lehentasunezko mezenasgo jardueren edo programen zerrenda, foru arau horretan bertan aipatzen diren interes orokorreko helburuen esparruan, bai eta erakunde onuradunek eta jarduera edo programa horiek bete behar dituzten betekizunak eta baldintzak ere.

Gainera, ezartzen da Arabako Foru Aldundiak mezenasgo jarduerak eta programak lehentasunezkoztat jo ahal izango dituela, bai bere ekimenekoak, bai beste pertsona edo erakunde batzuenak, eta lortzen dituen baliabideak zuzenean kudeatu ahal izango dituela, edo zeharka foru arau honek 5. artikuluan ezartzen dituen baldintzak betetzen dituzten irabazteko xederik gabeko erakundeetan parte hartzearen bidez.

31.1 artikulua arabera, lehentasunezko mezenasgo jardueretarako eta programetarako bideratzen diren diru zenbatekoek araubide berezi bat dute. Diru zenbateko horiek garbiak eta soilak izan behar dira, eta ezin dute izan inolako kontraprestaziorik. Araubide berezi hori honetan datza, laburbilduta:

a) Sozietateen gaineko zergaren zergadunek eta establezimendu iraunkorren bitartez diharduten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek lehentasunezkoztat jotako jardueretarako erabilitako kopuruaren ehuneko 45 ken dezakete kuota likidotik (publizitate babeseko kontratuak eta lankidetzat hitzarmenak direla bide emandako kopuruak barne).

Lehentasunezko jardueren berri zuzenean zabaltzeko propaganda eta publizitate gastuak egitea bada doako zerbitzugintza, kenkariaren oinarria gastuaren edo inbertsioaren guztirako zenbatekoa izango da, baldin eta publizitate euskarriaren edukian berariaz aipatzen bada lehentasunezko jardueren zabalkunde. Bestela, kenkariaren oinarria gastuaren edo inbertsioaren ehuneko 25 izango da. Hori guztia, betiere Irabazteko xederik gabeko entitateen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 35/2021 Foru Arauak horri buruz ezarritako baldintzak betetzen badira.

b) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek lehentasunezkoztat jotako jarduera eta programetarako erabilitako kopuruen ehuneko 45 kendu ahal izango dute kuota osotik (publizitate babeseko kontratuak eta lankidetzak hitzarmenak direla bide emandako kopuruak barne).

Horiek horrela, foru dekretu honen bidez, zehazten da 2023ko ekitaldirako zer jarduera edo programa izango diren lehentasunezkoak, bai eta zer baldintza eta prozedura ezarriko diren zenbait jarduera lehentasunezkoztat izendatzeko ere, guztia ere Irabazteko xederik gabeko entitateen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 35/2021 Foru Arauak 31. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

## ALHAO — 132 zk. — 2023/11/10 — (TICKETBAI, IS, PFEZ) —

**BIGAREN DIPUTATU NAGUSIORDE ETA OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILEKO FORU DIPUTATUAREN 714/2023 FORU AGINDUA, AZAROAREN 3KOA. ONESTEA MAIATZAREN 6KO 260/2022 FORU AGINDUA ETA ABENDUAREN 23KO 774/2022 FORU AGINDUA ALDATZEA, TICKETBAIKO ALTA FITXATEGIAREN DISEINUARI DAGOKIONEZ.**

Tresna teknologikoak erabili beharra ezartzen duen apirilaren 21eko 13/2021 Foru Arauak TicketBAI betebeharra betetzerabehartzen ditu zenbait zergadun; hain zuzen ere, sozietateen gaineko zergaren zergadunak, jarduera ekonomikoak gauzatzen dituzten pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunak eta establezimendu iraunkor baten bidez errentak eskuratzen dituzten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunak.

Gerora, TicketBAI betebeharra garatzen duen arautegia onetsi zuen urriaren 5eko 48/2021 Foru Dekretuak betebeharraren arautzeasoz duen arau garapenari ekin zion.

Testu horiek osatzeko, abenduaren 27ko 802/2021 Foru Aginduak TicketBAI softwarearen zehaztapen teknikoak eta funtzionalak arautu zituen, bai eta TicketBAI Softwarearen Erregistroan alta emateko adierazpena ere. Foru agindu horretan, TicketBAIko alta fitxategien egitura eta baliozkotzeak argitaratu ziren, bai eta TicketBAI fitxategien zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta bidalketarako baldintzak ere.

TicketBAI fitxategien zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta haien bidaltzeko betekizunak, era berean, aldatu egin ziren maiatzaren 6ko 260/2022 Foru Aginduaren bidez, zeinaren bidez arautzen baitira TicketBAI fitxategiakzuzentzekozerbitzuenbaldintzak, prozedura eta zehaztapen tekniko eta funtzionalak.

TicketBAIko alta fitxategien egitura eta baliozkotzeak aldatu egin ziren, abenduaren 23ko 774/2022 Foru Agindua argitaratuz. Haren bidez arautu ziren TicketBAI betebeharra duten zergadunentzako informazioaren berehalako horniduraren berezitasunak eta salbuespenezko kasu jakin batzuetan TicketBAI fitxategiakbidaltzeko beste modu berezi batzuk.

Foru Agindu honen xedea da alta emateko eta baliozkatzeko TicketBAI fitxategien egituraren eta baliozkotzeen definizioa eguneratzea. TicketBAIko alta fitxategiko aldaketek eragina dute, halaber, Zuzendu eta Osatu fitxategietan. TicketBAIko fitxategi mota ezberdinak bidaltzeko komunikazio protokoloan onartutako gutxienezko bertsioa ere eguneratzen da.



# BAO

## BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA

### BAO — 218 zk. — 2023/11/14 — (ZFAO) —

OGASUN ETA FINANTZEN FORU DIPUTATUAREN 387/2023 FORU AGINDUA, IRAILAREN 29KOA, ZEINAREN BIDEZ ALDATZEN BAITA OGASUN ETA FINANTZEN FORU-DIPUTATUAREN 1047/2018 FORU AGINDUA, EKAINAREN 12KOA, ERAGIKETA LOTUEN ETA PARADISU FISKALTZAT JOTAKO HERRIALDEEKIN EDO LURRALDEEKIN LOTUTAKO ERAGIKETEN ETA EGOEREN AITORPEN INFORMATIBORAKO 232 EREDUA ONESTEKOA.

#### AKATSEN ZUZENKETA

Oker bat sumatu ondoren Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 2023ko urriaren 10ekoa, 195 zenbakian, Bizkaiko Aldizkari Ofiziala arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 97/2009 Foru Dekretuko 17. artikuluan esaten duenez, jarraian berriz iragarki osoa argitaratzen da.

### BAO — 221 zk. — 2023/11/17 — (PFEZ) —

OGASUN ETA FINANTZEN FORU DIPUTATUAREN 559/2023 FORU AGINDUA, AZAROAREN 9KOA. HONEN BIDEZ ONETSI EGITEN DIRA 172 EREDUA (MONETA BIRTUALEN SALDOEI BURUZKO INFORMAZIOAREN AITORPENA) ETA 173 EREDUA (MONETA BIRTUALEKIN EGINDAKO ERAGIKETEI BURUZKO INFORMAZIOAREN AITORPENA), ETA AURKEZTEKO PROZEDURA ETA BALDINTZAK EZARTZEN DIRA.

Bizkaiko Lurralde Historikoan Zergen arloko zenbait aldaketa sartzen dituen uztailaren 20ko 8/2022 Foru Arauak Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergari buruzko 13/2013 Foru Araua aldatu zuen, eta 6 eta 7. apartatuak gehitu zituen hamargarren xedapen gehigarrian, moneta birtualak izateari eta horiekin egiten diren eragiketei buruzko betebeharrak ezartzeko, beroriek izatetik eta eragiketak egitetik eratorri daitezkeen zerga-egitateen kontrola hobetze aldera. Hala, moneta birtualen titularrek dituzten saldoei buruzko informazioa emateko betebeharrak ezartzen da, beste pertsona edo erakunde batzuen izenean zerbitzuak ematen dituztenen kargura, diru horiek edukitzeko eta erabiltzeko aukera ematen duten gako kriptografiko pribatuak babesteko, aipatutako monetak aldatzeko zerbitzuen hornitzaileak barne, baldin eta edukitzeko zerbitzu hori ere ematen badute. Era berean, pertsona edo erakunde horientzat ezartzen da esku hartzen duten moneta birtualen gaineko eragiketei buruzko informazioa emateko betebeharrak. Betebeharrak hori bera dute moneta birtual berrien hasierako eskaintzak egiten dituztenek ere.

Betebeharrak formal horien inguruko araudia Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 4ko 78/2023 Foru Dekretuaren bidez garatu da Horren bitartez, 50 bis eta 50 ter artikuluko berriak sartzen dira Bizkaiko Lurralde Historikoan zerga-betebeharrak formalak arautzen dituen erregelamenduan.

Halaber, aipatutako uztailaren 4ko 78/2023 Foru Dekretuak xedatzen du informazioa emateko betebeharrak buruzko lehenengo aitorpenak 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera aurkeztu beharko direla, aurreko urteko informazioari dagozkionak, hain zuzen. Informazioa emateko aitorpen berri horiek aurkeztu ahal izateko beharrezko ereduak oneste aldera, Foru Arau honen bitartez onesten dira 172 ereduak (Moneta birtualen saldoei buruzko informazioaren aitorpena) eta 173 ereduak (Moneta birtualekin egindako eragiketei buruzko informazioaren aitorpena).

Foru Agindu honen I eta II. eranskinetan jaso dira informazioa emateko adierazpenen erregistroaren diseinua eta edukia.

### BAO — 221 zk. — 2023/11/17 — (ZFAO) —

OGASUN ETA FINANTZEN FORU DIPUTATUAREN 560/2023 FORU AGINDUA, AZAROAREN 9KOA. HORREN BIDEZ, ONETSI DA 721.EREDUA («ATZERRIAN DAUDEN MONETA BIRTUALEI BURUZKO INFORMAZIO-AITORPENA») ETA EZARRI DIRA HURA AURKEZTEKO BALDINTZAK ETA PROZEDURA.

Bizkaiko Lurralde Historikoan zergen arloko zenbait aldaketa sartzen dituen uztailaren 20ko 8/2022 Foru Arauaren bidez, berridatzi zen Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren hogeia zazpigarren xedapen gehigarria, atzerrian moneta birtualak edukitzeari buruzko beste informazio-betebeharrak ezartzeko, diru-mota hori edukitzeagatik edo harekin eragiketak egiteagatik sortu daitezkeen zerga-egitateen gaineko kontrola hobetze aldera.

Aurrekoari jarraikiz, atzerrian moneta birtualak edukitzeari eta horiekin eragiketak egiteari buruzko informazio-betebeharrak berria aipatutako hogeita zazpigarren xedapen gehigarriaren f) egoeran jaso da.

Halaber, Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 4ko 78/2023 Foru Dekretuaren bidez, 53. quater artikuluko berria gehitu zen Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-betebeharrak formalak arautzen dituen Araudian (Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsi zenekoan); hala, gehitutako artikuluko horretan erregelamendu bidez garatu da atzerrian dauden moneta birtualei buruzko informazioa eman beharra.

Oro har, ezarri da urteko aitorpen informatibo bat aurkeztu beharko dela, honako informazio hau jasotzen duena urte bakoitzeko abenduaren 31ri dagozkionez: moneta birtual mota bakoitzak dituen saldoak, moneta birtualeko unitateetan adierazita, haien balorazioa eurotan, eta atzerrian dauden moneta birtual guztien titularren identifikazioa.

Ildo beretik, aipatutako uztailaren 4ko 78/2023 Foru Dekretuaren lehenengo xedapen iragankorrek ezarritakoaren arabera, informazioa emateko betebeharrak buruzko lehenengo aitortpenak 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera aurkeztu beharko dira, aurreko urteko informazioari dagozkionak, hain zuzen.

Foru-agindu honen bitartez onetsiko da hizpide dugun eredu, bai eta eredu aurkezteko gainerako baldintzak arautu ere.

## BAO — 223 zk. — 2023/11/21 — (BATUZ) —

### OGASUN ETA FINANTZEN FORU DIPUTAUAREN 609/2023 FORU AGINDUA, AZAROAREN 19KOA. HONEN BIDEZ, BATUZ SISTEMA BEHIN BETIKO EZARTZEKO UNITATEA SORTZEN DA ETA HAREN ANTOLAKETARAKO ETA FUNTZIONAMENDURAKO ARAUAK EMATEN DIRA.

Uztailaren 15eko 5/2020 Foru Arauak BATUZ sistema ezartzeko behar ziren xedapen arauemaileak arautu zituen. Sistema horrek Bizkaiko enpresa eta langile autonomo guztien zerga-betebeharrak betetzeko modua modernizatzen eta eguneratzen du, haien izaera eta tamaina edozein izanik ere, eta haientzako guztientzako laguntza-mekanismoak indartzen ditu. Sistema berri hori elkarren artean lotutako hiru elementutan oinarritzen da:

— Lehenik eta behin, TicketBAI software bermatzailea, Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko foru-ogasunen proiektu komuna, zeinak jarduera ekonomikoak garatzen dituzten zergadunei baitakarkie fakturazio-sistemetan elementu teknologiko aurreratuak nahitaz ezartzea, egiten dituzten ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak dokumentatzen dituzten erregistroen trazabilitatea eta bortxaezintasuna bermatzeko.

— Bigarrenik, eragiketa ekonomikoen erregistro liburua (aurrerantzean, EEEL). Haren arabera, Bizkaiko enpresa eta langile autonomo guztiek beren jarduerako eragiketa ekonomiko guztien erregistro-liburu bat bete behar dute Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa. Jakina denez, betebeharrak hori 2014. urtean ezarri zen jarduera ekonomikoen titular diren pertsona fisikoentzat eta errentak eratzitzeko araubideko entitateentzat, eta, beraz, BATUZek betebeharrak hori sozietateen gaineko zergaren peko pertsona juridikoen eta erakundeen kasuan ere zabaltzea ekarri du.

— Eta, hirugarrenik, pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren, sozietateen gaineko zergaren eta balio erantsiaren gaineko zergaren aitortpenen zirraborroak egitea. BATUZen hirugarren ardatzak oinarri du zerga-kudeaketako eredu berri baten ezarpena, Bizkaiko Ogasunak zergadunei ematen dien laguntza indartzera eta zergadun guztiek ekarpenak egiteko duten betebeharrak espontaneoki bete dezaten sustatzera bideratua, haien tamaina edo forma juridikoa edozein dela ere. Ildo horretan, haien eskura jartzen dira ordaindu behar dituzten zerga nagusien aitortpenen zirraborroak.

Hasiera batean, 2022ko urtarrilaren 1ean jarri zen BATUZ proiektua Bizkaiko enpresentzat eta langile autonomoentzat ezartzeko eguna. Baina kontuan hartuta COVID-19aren pandemiak eragindako osasun publikoko nazioarteko larrialdia deklaratu zenetik gertatutako inguruabarrak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Batzar Nagusiek, 2021. urtearen amaieran, foru-arau bat onartu zuten, 2022ko urtarrilaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra arte BATUZ proiektuari lotutako betebeharrak borondatez betetzeko epeari jarraipena eman ziona. Hala, erraztu eta bermatu egin da zergadunek betebeharrak egokiro betetzea, eta 2024ko urtarrilaren 1era atzeratu da, oro har, proiektuari nahitaz hasiera emateko eguna.

2022. eta 2023. urteetan zehar, jarduera ekonomikoak egiten dituzten 16.000 pertsona eta erakunde baino gehiago atxiki zaizkio— euren borondatez eta modu ezetztaezinean— BATUZ sistema betetzeari; ondorioz, euren fakturak TicketBAIren baldintzak beteta egin dituzte, eta 290 milioi idatzohar baino gehiago egin dira EEELean, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa.

Baina badira oraindik 74.000 pertsona fisiko eta erakunde sisteman sartu gabe daudenak. Pertsona-erakundeok ez daude egoera berean, ez gauzatu behar dituzten teknologia- eta antolaketa-aldaketen ondorioz, ez beren eragiketen kontrol ekonomiko-finantzarioaren arloan zein kontrol horretarako azpiegituraren arloan duten abiapuntu-egoeratik beragatik.

Gure inguruko administrazioek BATUZ sistema osatzen duten elementuetako bakar bat, TicketBAI, inplementatzen eskuratu duten esperientziak agerian utzi du komeni dela gainerako zergadunen nahitazeko atxikipena aldi batean zehar banatzea, bai zergadun horiek, bai haien hornitzaile teknologikoak eta bai oinarri duten aholkularitza fiskaleko profesionalak egokitu ahal izateko.

Egoera horri erantzuteko, Bizkaiko Foru Aldundiak foru-arauaren proiektu bat onartu du eta Batzar Nagusietara bidali (izapidetu dezaten), BATUZ sistema behin betiko ezar dadila agintzeko neurriak onesten dituenak.

Proiektu horrek BATUZ sistema behin betiko ezartzeko prozesua antolatzen du; honela: sei hilean behingo epealdiak jarri dira, 2024. urtarrilaren 1ean hasita —gaitasun eta dimentsio handieneko zergadunentzat— eta 2026. urtearen urtarrilaren 1ean amaituta. Epealdi horietan zehar, aukera ematen zaie jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona fisikoei eta mikroenpresei eta enpresa txiki eta ertainei (tamaina txikiko kooperatibak eta sozietateen gaineko zergatik salbuetsitako eta partzialki salbuetsitako erakundeak barne) eta irabazi-asmorik gabeko erakundeentzat ezarritako zerga-araubide berezia aplikatzen duten erakundeek BATUZ sistemaren betebeharrak benetan betetzeko denbora nahikoa izan dezaten, eta, oro bat, bide ematen zaie inplikaturako eragile guztiei baldintza optimoetan egokitzeko, eta Bizkaiko Foru Ogasunak haiei guztiei prozesu horren garapenean laguntzeko. Zergadunak adierazi diren epealdietako zinetan sartuko diren banatzeko, kontuan hartuko da BATUZ sistema aplikatzeko beharrezkoak diren trantsizio-prozesuak burutzeko duten zailtasuna txikiagoa edo handiagoa izatea Ikus daitekeen bezala, proiektu hau abian jartzeko, beronen tamaina aintzat hartuta, langileak behar dira, batetik, zergadunei Bizkaiko Foru Ogasunarekin izango duten

harremanean laguntza egokia bermatu diezaieten — proiektua behin betiko ezartzeko fasean mota guztietako laguntza-zerbitzuak eskatuko baitituzte ziur aski— eta, bestetik, zerga-eredu berriak, tresna informatikoak eta proiektuarekin lotutako beste alderdi batzuk kudeatu ditzaten.

Gaur egun, zeregin horiek Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiko Zergak Kudeatzeko, Ikuskapenerako eta Informazioaren eta Sistemen zuzendariordetzei atxikitako langileek burutzen dituzte. Hala ere, BATUZ sistema behin betiko ezartzeko agintzen duen foru-araua laster onartuko denez, une honetan talde funtzional bat sortu behar da, bereziki eginkizun horiek garatzeko ardura izango duena, eginkizunon koordinazioa, ikuskapena eta jarraipena hobetzeko.

Ildo horretan, gogorarazi behar dugu Ogasun eta Finantza Sailaren Egitura Organikoari buruzko Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 28ko 3/2020 Foru Dekretuaren azken xedapenetako lehenengoak ahalmena ematen diola Ogasun eta Finantzen foru diputuari aipatutako foru-dekretua behar bezala gauzatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren alderdi guztiak garatu ditzan. Hori dela eta, foru-agindu honen bidez, BATUZ sistema behin betiko ezartzeko Unitatea sortzen da, Informazioaren eta Sistemen Zuzendariordetzaren mendeko unitate gisa, Zergak Kudeatzeko, Ikuskapenerako eta Informazioaren eta Sistemen zuzendariordetzaren destinoa duten langileek osatua. Halaber, unitatearen xedea zehazten da, eta haren jardunbidea arautu behar duten antolamendurako eta funtzionamendurako oinarritzko arauak ematen dira. Nolanahi ere, Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiak ahalmena izango du foru-agindu hau garatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko, unitate berriak bere eginkizunak egoki eta eraginkortasunez bete ditzan.

OGASUN ETA FINANTZEN FORU DIPUTATUAREN 591/2023 FORU AGINDUA, AZAROAREN 13KOA. HONEN BIDEZ, ONETSI EGITEN DIRA BIDALKETA BERMATUEN MUGIMENDUEI LOTUTAKO GARAPEN-ARAUAK, 504 EREDUA EUROPAR BATASUNEN GAINERAKO LURRALDEA HELMUGA EDO JATORRI DUTEN ETA FABRIKAZIO-ZERGA BEREZIEK ZERGAPETURIK DAUDEN PRODUKTUAK IGORTZEKO EDO HARTZEKO BAIMEN-ESKAERA; 505 EREDUA EUROPAR BATASUNEN GAINERAKO LURRALDEA HELMUGA EDO JATORRI DUTEN ETA FABRIKAZIO-ZERGA BEREZIEK ZERGAPETURIK DAUDEN PRODUKTUAK IGORTZEKO EDO HARTZEKO BAIMENA; ETA 507 EREDUA ITZULKETA EGITEKO ESKAERA, BIDALKETA BERMATUEN SISTEMAN, AURKEZTEKO MODUA ETA PROZEDURA ZEHAZTEN DIRA, ETA INSKRIPZIOA LURRALDE-ERREGISTROAN EGITEKO MODUA ARAUTZEN DA.

Maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsitako Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren 33. artikularekin bat, zerga bereziak itundutako zergak dira eta lurralde erkidean une bakoitzean ezarrita dauden edukizko eta formazko arau berberak erabiliko dira haiek eraentzeko, foru aldundiak zerga bereziak airtortzeko ereduak eta haiek ordaintzeko epeak zehazteko duten eskumena gorabehera.

Kontseiluaren 2019ko abenduaren 19ko 2020/262 (EB) Zuzentaraua, zeinaren bidez ezartzen baita zerga berezien modua, Kontseiluaren 2008ko abenduaren 16ko 2008/118/EE Zuzentarauaren bertsio batekin bat da (zuzentarau hori energia-produktuen eta elektrizitatearen, alkoholaren eta edari alkoholodunen kontsumoa eta tabako-laboreen kontsumoa zuzenean edo zeharka kargatzen duten zerga berezien araubide orokorrari buruzkoa da). Hala, bada, kontuan hartuta Kontseiluaren 2008ko abenduaren 16ko 2008/118/EE Zuzentaraua nabarmen aldatu dela hainbatetan, beharrezkotzat jo da haren bat-egiteari hartzea, argitasun handiagoa lortzeko.

2020/262 (EB) Zuzentzarauan egindako aldaketak teknikoak dira, funtsean, eta helburu dute zuzentzaraua egokitzea Lisboako Tratatuaren eta Europar Batasuneko Aduana Kodea ezartzen duen Europako Parlamentuaren 2013ko urriaren 9ko 952/2013 (EB) Erregelamenduaren terminologiara.

Europar Batasunaren barruko bidalketa bermatuen zirkulazioaren esparruan, Batzordearen 2022ko uztailaren 5eko 2022/1636 (EB) Erregelamendu Eskuordetu berriak garatu egin du Kontseiluaren 2019ko abenduaren 19ko 2020/262 (EB) Zuzentaraua, honela: zerga bereziak ordaindu behar dituzten produktuen zirkulazioaren esparruan trukaturako dokumentuen egitura eta edukia ezarri, eta produktuen izaerak eragindako galeretarako atalase bat ipin. Aplikazio-data 2023ko otsailaren 13tik aurrera izango da.

Erregelamendu eskuordetu horretan, laburbilduz eta besteak beste, administrazio-dokumentu elektronikoko sinplifikatuaren zirriborroa eta helmuga-aldaketa baliozkotzeko eman behar diren informazio-eremuen egitura eta betekizunak ezartzen dira. Batzordearen 2022ko uztailaren 5eko 2022/1637 (EB) Exekuzio Erregelamenduaren bidez, Kontseiluaren 2019ko abenduaren 19ko 2020/262 (EB) Zuzentaraua aplikatzeko xedapenak ezartzen dira, zerga bereziak ordaindu behar dituzten etete-araubideko produktuen zirkulazioaren eta kontsumorako saldu ondoren zerga berezien kargaren peko produktuen zirkulazioaren testuinguruan dokumentuak erabiltzeko dagokionez, eta erabili behar den salbuespen-ziurtagiriaren erdua ezartzen da, 2023ko otsailaren 13tik aurrera aplikatu behar dena. Hala, bada, exekuzio-erregelamendu horretan, administrazio-dokumentu elektronikoko sinplifikatu bat emateko prozedura arautzen da.

Azkenik, zirkulazio-dokumentuei dagokionez, Kontseiluaren 2023/246 (EB) Erregelamendua, 2023ko urtarrilaren 30ekoak (389/2012 (EB) Erregelamendua aldatzen duenak, estatu kideen artean zerga bereziak ordaindu behar dituzten produktuak merkataritza-helburuekin lekualdatzen dituzten operadore ekonomikoek buruz erregistro elektronikoa tronikoetan gordetako informazioa trukatzeko dagokionez), erregistro horiek eguneratzen ditu, administrazio-dokumentu elektronikoko sinplifikatu berri horiekin sortzen diren mezuak sartzeko.

Maiatzaren 8ko 11/2023 Legeak, besteak beste, Kontseiluaren 2019ko abenduaren 19ko 2020/262 (EB) Zuzentzarauaren transposizioa egiten du, eta, aipatutako lege-aldaketan jasotako gaien artean, azpimarratzekoa da bermatutako bidalketen prozeduraren definizioa berri bat, Espainiako araudian igorle eta hartzailerak ziurtatuaren figura berriak sartzeko eta baimendutako hartzaileraren figura desagertzea. «Bidalketa bermatuak» fabrikazio-zerga berezien kargaren peko produktuen Europar Batasunaren barruko zirkulazio-prozedura dira. Produktu horiek direla-eta dagoeneko zerga sortu da jatorri-estatu kidearen lurraldean, eta helmugako estatu kidean dagoen hartzailerak ziurtatu batentzat dira —Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legearen 63. artikuluan ezarritako murrizketekin, tabako-laboreen barruko lurralde-eremuko harrerei dagokionez—, betiere bidaltzaileak berak, edo haren kargara, produktuok zuzenean edo zeharka igortzen edo garraiatzen ez baditu eta erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzak eta betekizunak betetzen badira.

Gainera, maiatzaren 8ko 11/2023 Legean bertan, Zerga Bereziei buruzko Erregelamendua ere aldatzen da, eta zehatz-mehatz jasotzen da bermatutako bidalketen prozedura informatizatua, 33 bis, ter, quater, quinquies, sexies eta septies artikuluen berrietan. Gaur egun zerga bereziak ordaindu behar dituzten etete-araubideko produktuen zirkulaziorako erabiltzen den sistema informatizatua EMCS deritzon sistema da (ingelesezko siglak: Excise Movement Control System), eta estatu kide baten lurraldean kontsumorako saltzen diren eta beste estatu kide bateko lurraldera merkaturatzeko eramaten diren produktuen zirkulaziora hedatu da. Ildo horretan, administrazio-dokumentu elektronikoko sinplifikatu berri bat sortu da, mugimendu horiek babestu beharko dituen, eta egungo 503 ereduak ordeztuko duena (agiri osagarri sinplifikatua, paperean ematen dena eta 2023ko otsailaren 13tik aurrera desagertuko dena).

Sistema informatizatua horren bidez, aipatutako zirkulazioaren jarraipena sinplifikatu nahi da, eta barne-merkatuaren funtzionamendu egokia bermatu. Dokumentu elektronikoko berri horren bidez, kontsumoko estatu kideetan bidalketa bermatuen eragiketen sortzapenaren kontrola bermatu nahi da, zeina hartzailerak ziurtatuak helmugako lekuan jasotzen duen momentuan gertatuko baita. Horren ondorioz, hartzailerak ziurtatua fabrikazioaren gaineko zergen subjektu pasibotzat hartuko da, zergadun gisa, eragiketa horiek egiteagatik.

Neurri horiek guztiak 2023ko otsailaren 13tik aurrera aplikatuko dira. Hala ere, 2023ko abenduaren 31ra arte jarraitu ahal izango da Kontseiluaren 2008/118/EE Zuzentzarauaren 33., 34. eta 35. artikuluetan jasotako izapideen arabera bidalketa bermatuen prozeduraren bidez zerga berezien xede diren produktuak jasotzen. Kontseiluaren 2019ko abenduaren 19ko 2020/262 (EB) Zuzentzarauak berak aurreikusten du bi figura berriak sortzea, igorle eta hartzailerak ziurtatuak, eta halako mugimenduak ohikotasunez edo noizean behin egiteko aukera ezartzen du. Figura horiek Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legean ere jasotzen dira, 2023ko maiatzeko erreformaren ondorioz.

Hartzailerak ziurtatua edozein pertsona edo erakunde izango da, helmugako estatu kideko agintaritzak eskudunen aurrean erregistratua, zerga bereziak ordaindu behar dituzten produktuak jasotzeko, baldin eta produktuok estatu kide baten lurraldean kontsumorako saldu badira pertsona hori bere lanbidean aritzean, eta ondoren beste estatu kide baten lurraldera lekualdatu badira.

Igorle ziurtatua aipatzen den edozein pertsona edo erakunde izango da, bidalketako estatu kideko agintaritzak eskudunen aurrean erregistratua, zerga bereziak ordaindu behar dituzten produktuak bidaltzeko, baldin eta produktuok estatu kide baten lurraldean kontsumorako saldu badira pertsona hori bere lanbidean aritzean, eta ondoren beste estatu kide baten lurraldera lekualdatu badira.

Bidalketa bermatuen arloko araudi berri hau indarrean jartzeko, beharrezko arauak onartu behar dira ukitutako ohiko operadoreek zerga berezien kudeaketa-bulegoko (haien egoitza fiskalari dagokiona) lurralde-erregistroan inskripzioa egiteko eskatzeko modua, betekizunak eta baldintzak zehazteko. Oro bat, eragiketa horien erregistroaren funtzionamenduari lotutako arauak onartu behar dira.

Inskripzio hori egiteko, operadoreek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte: identifikazio-dokumentazioa, garatu beharreko jardura deskribatzen duen memoria labur bat; horrez gainera, hala badagokio, hartzailerak ziurtatuak eska daitezkeen bermeak eman beharko ditu.

Halaber, arauak garatu behar dira noizbehinkako operadoreek fabrikazio-zerga bereziei zergapetutako produktu batzuk igorri eta hartzeko baimenei dagokionez. Produktu horiek, zehazki, Europar Batasunaren ez-barneko lurralde-eremutik bidalketa bermatuen prozeduraren bidez igorritakoak dira, etete-araubidez kanpo, barne-eremuko lurralderako helmuga dutelarik.

Halaber, aldaketak jasotzen dira zerga berezien kuotak bidalketa bermatuen sisteman Espainian itzultzeari dagokionez; izan ere, 2023ko otsailetik aurrera, eskatzaileak igorle ziurtatu gisa erroldatuta egon beharko du, eta egiaztatuta beharko du, produktuak entregatu aurretik, hartzaile ziurtatuak helmugako herrialdean zergen ordainketa bermatu duela. Betiere, itzulketa entregatutako produktuei dagozkien kuotetara zabalduko da, hura gauzatzeko beharrezkoa izango da helmugako estatu kidean zerga ordaintzea. Igorle ziurtatuak itzulketa-eskaera bat aurkeztuko du establezimendu bakoitzari (zeinetik entrega egin baita) dagokion kudeaketa-bulegoan. Eskaera hori ereduarekin bat etorriko da, eta bidalketa bermatuen prozeduraren bidez hiruhileko bakoitzean egin diren entregak jasoko ditu, zeinengatik zerga ordaindu baita Europar Batasunaren ez-barneko lurralde-eremuan.

## BAO — 224 zk. — 2023/11/22 — (ZZBB) —

### OGASUN ETA FINANTZEN FORU DIPUTATUAREN 592/2023 FORU AGINDUA, AZAROAREN 13KOA, ZEINAREN BIDEZ ONESTEN DEN 508 EREDUA, «FABRIKAZIO-ZERGA BEREZIAK. URRUNEKO SALMENTEN SISTEMAN ITZULKETA EGITEKO ESKAERA».

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legeko 33. artikularekin bat, fabrikazio-zerga bereziak zerga itunduak dira eta lurralde erkidean une bakoitzean ezarrita dauden arau substantibo eta formal berak erabiliko dira haiek arautzeko, foru-aldundiak zerga bereziak aitortzeko ereduak eta haiek ordaintzeko epeak zehazteko duten eskumena gorabehera. Lege horrek ezartzen du, halaber, zerga bereziok foru-aldundiak eskatuko dituztela, zergen sortzapena Euskadin gertatzen bada.

Hala, bada, Fabrikazio-zerga berezien gaineko hainbat eredu onetsi eta zenbait kudeaketa-arau eguneratzen dituen martxoaren 15eko 664/2011 Foru Aginduaren bidez, xedapen bakar batean finkatu ziren fabrikazio-zerga berezien arloko autolikidazioak, eragiketa-aitorpenak, baimenak edo eskabideak aurkeztearekin lotutako betebeharrak formal gehienak.

Zehazki, Zerga Bereziei buruzko Legearen 10.1.e) artikuluan eta zerga horiei buruzko erregelamenduaren 10. artikuluan aurreikusitakoa betetzeko, 508 eredu onartu zen, «Fabrikazio-zerga bereziak. Urruneko salmenten sisteman itzulketa egiteko eskaera».

Eredu hori, Ogasun eta Finantzen foru-diputatuaren 212/2021 Foru Aginduaren artikulua bakarraren 1. apartatua ezarritakoaren arabera (foru-agindu horren bidez, tributu-eredu jakin batzuk telematikoki aurkezteko betebeharraren salbuespena garatzen da), salbuespena geratu zen Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez bitarteko elektronikoen erabiliz aurkezteko betebeharrak.

Apurka-apurka zerga-administrazio nagusiki elektronikoranzko aldaketa gertatzen ari den une honetan, zergadunei tributu-betebeharrak betetzen laguntzeko, 508 eredu Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez aurkezteko betebeharrak ezartzen da; horretarako, egoitza elektronikoen horretan aurkezpen hori egiteko eskuragarri jarriko den formularioa bete beharko da.

## BAO — 225 zk. — 2023/11/23 — (ZZBB) —

### 6/2023 FORU ARAUA, AZAROAREN 22KOA, BERRERABILI EZIN DIREN PLASTIKOZKO ONTZIEN GAINEKO ZERGA BEREZIARI BURUZKOA.

Apirilaren 4an, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legea aldatzen duen apirilaren 3ko 9/2023 Legea argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean.

12/2002 Legea onartuta, Ekonomia Itunaren artikuluen artean sartu da Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren 2022ko azaroaren 17ko Lehenengo Akordioaren eta 2022ko abenduaren 27ko Lehenengo Akordioaren edukia. Akordio horiek Bizkaiko Batzar Nagusiek berretsi dituzte, 3/2023 Foru Arauaren bidez —otsailaren 15ekoa, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren 2022ko azaroaren 17ko Lehenengo Akordioa eta Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren 2022ko abenduaren 27ko Lehenengo Akordioa berresteko dena—.

Ekonomia Itunaren oraingo aldaketak sartu dituen berrikuntzen artean —azken aldaketa otsailaren 8ko 1/2022 Legearen bidez gauzatu zen, haren bidez aldatu baitzen Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legea—, nabarmentzekoa da beste hiru zerga berri itundu direla.

Itundu berri diren zergetako bat Berrerabili ezin diren plastikozko ontzien gaineko zerga berezia da. Indarreko Ekonomia Itunaren 33 bis artikulua arabera, zerga horri Estatuak aldi bakoitzean ezarritako arau substantibo eta formal berak aplikatuko zaizkio. Nolanahi ere, lurralde historikoetako erakunde eskudunek aitortpenak eta sarrerak egiteko ereduak onetsi ahal izango dituzte, baina eredu horietan lurralde erkideko ereduak datu berberak jasoko dira, gutxienez; eta sarrerak egiteko epeak jarri ahal izango dituzte likidazio-aldi bakoitzerako, baina epe horiek ez dute alde handirik izango Estatuko Administrazioak ezartzen dituenekin.

Hala, bada, xedapen hau eman behar da gure ordenamenduan sartzeko zerga berri honen gaineko arauketa, non jaso behar baitira Ekonomia Ituneari ezarrita dauden lotura-puntuak zerga ordainarazteko.

Ildo horretan, zergadunek honako arau hauen arabera ordaindu beharko diote zerga Bizkaiko Foru Aldundiari:

1. Zergaren eremu objektiboa osatzen duten produktuen fabrikazioaren kasuan, baldin eta jarduera garatzen den establezimenduak Bizkaiko Lurralde Historikoan kokatuta badaude.
2. Zergaren eremu objektiboa osatzen duten produktuen Europar Batasunaren barruko eskurapenaren kasuan, baldin eta zergadunaren egoitza fiskala Bizkaiko Lurralde Historikoan bada.
3. Zergapeko produktuak modu irregularrean sartzen diren kasuan, baldin eta produktuak Bizkaiko Lurralde Historikoan badaude modu irregularrean sartu direla egiaztatzen den uanean.

Halaber, zergaren egiaztatzen nahiz ikerketa Bizkaiko Foru Aldundiari egokituko zaizkio, zerga ordainarazteko eskumena badu, zerga-administrazioen arteko lankidetzaren gorabehera.

Berrerabili ezin diren plastikozko ontzien gaineko zerga berezia, 7/2022 Legeak sortua (7/2022 Legea, apirilaren 8koa, Ekonomia Zirkularerako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzkoa), zeharkako zerga bat da, plastikoa edukirik berrerabili ezin diren ontzien erabilera zergapetzen duena.

Zerga ingurumena babesteko tresna ekonomiko gisa eratzen da; ingurune naturala errespetatzen duten jokabideak sustatzen ditu, ingurumeneko kanpo-efektuak zuzentzen ditu eta hondakinen sorrera prebenitzen du, eta, hartara, hondakin onena sortzen ez dena dela dioten printzipioa benetan gauzatzen du.

Zergapean egongo dira ontzi hutsak zein salgaiak barnean dituztenak, salgaiak babesten dituztenak eta salgaiak manipulatu, banatu eta aurkezteko direnak. Material batez baino gehiagoz osatuta dauden ontzi plastikodunak duten plastiko-kantitatearen arabera kargatuko dira.

Zergaren zerga-egitatea da plastikoa edukirik berrerabili ezin diren ontzien fabrikazioa, inportazioa edo ontzi horien Europar batasunaren barruko eskurapena; zergadunak, berriz, fabrikatzaileak, inportatzaileak edo Europar Batasunaren barruko eskuratzaileak, hurrenez hurren.

Baina, aintzat harturik batzuetan halako ontzien fabrikazioan eragile ekonomiko batek baino gehiagok parte hartzen dutela edo, areago, ontzi horien zati jakin batzuk — itxigailuak, adibidez— subjektu batek baino gehiagok fabrikatzen dituztela, eta zergapeko-kopurua, ahal dela, ahalik eta gehien murrizteko, zergaren gestioa errazteko eta, bide batez, ukitutako subjektuen administrazio-kargak gutxitzeko, kargaren pean egongo dira plastikozko produktu hauen fabrikazioa, inportazioa edo Europar Batasunaren barruko eskurapena: ontziak fabrikatzeko diren produktu plastiko erdilanduak, hala nola aurreformak edo xafra termoplastikoak, bai eta ontziak ixtea, merkaturatzea edo aurkeztea ahalbidetzen duten plastikozko beste produktu batzuk ere. Horiek horrela, ez dira fabrikatzailetzat hartuko eta, ondorioz, ez dira zergaren zergaduntzat hartuko produktu erdilanduetatik abiatuta ontziari behin betiko forma ematen diotenak edo zergapetu diren plastikozko beste osagai batzuk ontziari gehitzen dizkietenak, hala nola itxigailuak.

Bestalde, produktu plastikoaren birziklatzea sustatzeko, ez da zergapetuko zergaren eremu objektiboa osatzen duten produktuetan dagoen plastiko birziklatuaren kantitatea.

Ildo horretan, zergak kargatutako produktuetan dagoen plastiko ez-birziklatuaren kantitatea izango da zerga-oinarria, kilogramotan adierazia. Zerga-tasa 0,45 euro da kilogramoko.

Ez dira zergapean egongo pinturak, tintak, lakak eta itsasgarriak, ondasunak edo produktuak barruan eduki, babestu, manipulatu edo erregatzen diren produktuei gehitzeko sortutakoak. Oro bat ez dute zerga ordaindu beharko ontzien inportazio eta Europar Batasunaren barruko eskurapen txikiak, salbuesita egoteagatik. Halakotzat hartuko dira inportatzen diren edo Europar Batasunaren barruan eskuratzen diren ontzietan dagoen plastiko ez-birziklatuaren guztizko kopurua 5 kilogramotik gorakoa ez dutenak.

Halaber, egoki iritzi zaio da gai batzuk barruan eduki, babestu, manipulatu, banatu eta aurkezteko erabiltzen diren produktuak zergatik salbuesteari, zehazki, hauek: sendagaiak, osasun-produktuak, erabilera mediku berezietarako elikagaiak, bularreko umeentzako ospitale-erabilerako prestakinen edo osasun-jatorriko hondakin arriskutsuak, bai eta nekazaritza- edo abeltzaintza-erabilerako siloratzetarako plastikoko biribilkiak ere.

## BAO — 225 zk. — 2023/11/23 — (ZZBB) —

### 7/2023 FORU ARAUA, AZAROAREN 22KOA, ZABORTEGIETAN HONDAKINAK UZTEAREN, HONDAKINAK ERRAUSTEAREN ETA BATERA ERRAUSTEAREN GAINEKO ZERGARI BURUZKOA.

Apirilaren 4an, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legea aldatzen duen apirilaren 3ko 9/2023 Legea argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean.

12/2002 Legea onartuta, Ekonomia Itunaren artikuluen artean sartu da Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren 2022ko azaroaren 17ko Lehenengo Akordioaren eta 2022ko abenduaren 27ko Lehenengo Akordioaren edukia. Akordio horiek Bizkaiko Batzar Nagusiek berretsi dituzte, 3/2023 Foru Arauaren bidez —otsailaren 15ekoa, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren 2022ko azaroaren 17ko Lehenengo Akordioa eta Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren 2022ko abenduaren 27ko Lehenengo Akordioa berresteko dena—.

Ekonomia Itunaren aldaketa horrek sartu dituen berrikuntzen artean —Ekonomia Itunaren azken aldaketa otsailaren 8ko 1/2022 Legearen bidez gauzatu zen, haren bidez aldatu baitzen Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legea—, nabarmentzekoa da beste hiru zerga berri itundu direla. Itundu berri diren tributuetako bat Zabortegetan hondakinak uztearen, erraustearen eta batera erraustearen gaineko zerga da, eta, indarrean dagoen Ekonomia Ituneko 34 quater artikuluan xedatutakoaren arabera, Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen funtsezko eta formazko arau berberak erabiliko dira hura eraentzeko. Aurrekoa gorabehera, lurralde historikoetako erakunde eskudunek zerga honen karga-tasak gehitu ahal izango dituzte, lurralde erkidean unean-unean indarrean dauden mugen eta baldintzen barruan.

Lurralde historikoetako erakunde eskudunek, halaber, autolikidazio- eta sarrera-ereduak onesteko ahalmena izango dute, zeinek gutxienez lurralde erkidean erabiltzen diren datu berak izango baitituzte; horrez gainera, likidazio-aldi bakoitzeko sarrera-epeak zehazteko ahalmena izango dute, baina ez dira izango Estatuko Administrazioak ezarritakoez oso bestelakoak. Hala, bada, xedapen hau eman behar da gure ordenamenduan sartzeko zerga berri honen gaineko arauketak, non jaso behar baitira Ekonomia Itunean ezarrita dauden lotura-puntuak zerga ordainarazteko.

Ildo horretan, zergadunek kasu honetan ordainduko diote zerga Bizkaiko Foru Aldundiari: zerga honen peko hondakinak entregatzen diren zabortegeta, hondakinak errausteko instalazioa edo batera errausteko instalazioa Bizkaiko Lurralde Historikoan kokaturik badago.

Zerga ingurumena babesteko tresna ekonomiko gisa eratzen da; hondakinak berrerabiltzea eta birziklatzea sustatzen du, eta pizgarria kentzen die hondakin hierarkia-printzipioaren arabera hain onuragarriak ez diren beste aukera batzuei. Zeharkako zerga gisa eratzen da eta hondakinak zergapetzen ditu, haiekin gestio-eragiketak egiten diren heinean; izan ere, zabortegetan entregatzen dira ezabatuak izateko, edo, bestela, errausteko instalazioetan edo batera errausteko instalazioetan entregatzen dira ezabatuak izateko edo haien balorizazio energetikoa egiteko.

Tresna ekonomiko honen erabilera funtsezko mekanismoa da ekonomia zirkularrean aurrera egiteko eta hondakin arloan berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestatzeko helburuak lortzeko; pizgarria kentzen die hondakin hierarkia-printzipioaren arabera hain onuragarriak ez diren beste aukera batzuei, eta hondakinak ingurumenaren ikuspegitik egokiagoak diren aukeretara desbideratzen laguntzen du, zeinek hondakinetan dauden materialak ekonomian berriro sartzeko lagun baitezakete; birziklatzeaz ari gara, besteak beste.

Zergaren zerga-egitatea hondakinaren entregatzea da, bai zabortegetan ezabatuak izateko, bai errausteko instalazioetan edo batera errausteko instalazioetan ezabatuak izateko edo haien balorizazio energetikoa egiteko —instalazio horiek direla titulartasun publikokoak edo pribatukoak—. Hala ere, zenbait salbuespen ezarri dira, hala nola:

ezinbesteko kasuetan, premia larriko egoeretan edo hondamendietan agintari publikoek aginduta egiten bada entregatze hori; suntsitu beharreko ondasunak konfiskatu behar badira; suntsitzeko legezko betebeharra duten hondakinak entregatzen badira; edo udal-hondakinaren erresak ez diren tratamendu-eragiketen ondoriozko hondakinak badira entregatzen direnak, tarteko tratamendu-eragiketak ez diren balorizazio-eragiketak egiten dituzten instalazioetatik datozenak; besteak beste.

Ildo horretan, zerga-oinarria zabortegetan utzi, erraustu edo batera errausturiko hondakinaren pisua izango da. Kuota osoa kalkulatzeko zerga-tasa, berriz, aldatu egiten da tratamendu-instalazio motaren arabera; hain zuzen, bereizi egiten da instalazio hauen artean: hondakin ez-arriskutsuen, hondakin arriskutsuen edo hondakin geldoen zabortegeta; D10 gisa kodetutako ezabate-eragiketak edo R01 gisa kodetutako balorizazio-eragiketak egiten dituzten udal-hondakinak errausteko instalazioak; errausteko beste instalazio batzuk; edo batera errausteko instalazioak. Horrez gainera, zerga-tasa ere aldatu egiten da instalazio horietako bakoitzerako, hondakin-motaren arabera: udal-hondakinak, udal-hondakinaren erresak, 646/2020 Errege Dekretuak (uztailaren 7koa, zeinaren bidez arautzen baita hondakinak zabortegetan utzita nola deuseztatu) xedatutakoaren arabera aurretiazko tratamendutik salbuesita dauden hondakinak, hondakinak tratatzeko eragiketa jakin batzuen mende ez dauden hondakinak (erraustuen kasuan) eta beste hondakin-mota batzuk.

## 8/2023 FORU ARAUA, AZAROAREN 22KOA, BATUZ SISTEMAREN BEHIN BETIKO EZARPENA ANTOLATZEKO NEURRIAK ONARTZEN DITUENA, ZERGA-ARLOKO ADMINISTRAZIO-LANKIDETZARI ETA BESTE ZERGA-ALDAKETA BATZUEI BURUZKO 2011/16/EB ZUZENTARUA ALDATZEN DUEN KONTSEILUAREN 2021EKO MARTXOAREN 22KO 2021/514 (EB) ZUZENTARUAAREN TRANSPOSIZIOA EGITEKO.

Foru-arau honek zerga-neurriak ezartzen ditu hiru eremu desberdinetan: I. titulua Bizkaiko Lurralde Historikoen ordenamendu juridikoan txertatzen ditu Batuz sistemaren nahitaezko eta behin betiko ezarpena arautzeko neurriak; II. titulua fiskalitatearen arloko administrazio-lankidetzaren arloan Europar Batasunean hartu diren erabakien transposizioa egiten du Bizkaiko zerga-ordenamendura, eta III. titulua indarrean dagoen zerga-araudiaren zenbait alderdi tekniko aldatzen dira.

I. titulutik hasita, gogoratu behar da Batuz sistema 2020ko uztailaren 15eko 5/2020 Foru Arauaren onarpenarekin ezarri zela, foru-arau horrek ekonomia-jardueren etekinak kontrolatzeko sistema integral bat eta tributu-betebeharrak betetzen laguntzeko neurriak ezarri baitzituen. Horretarako, foru-arauaren bidez, aldatu egin ziren Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Araua, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Araua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Araua, Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Araua eta Bizkaiko Lurralde Historikoen Zergei buruzko Foru Arau Orokorra. Hala, bada, foru-arau horretan aurreikusitako sistema hori 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera ezarriko zitzaizela, oro har, sozietateen gaineko zergaren zergadunei, establezimendu iraunkorren bidez diharduten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunei eta ekonomia-jardueretatik etekin ekonomikoak lortzen dituzten pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunei.

Batuz sistemaren abiapuntua da, Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA) «Salmenten ezabatze elektronikoa: sarrera fisikaletarako mehatxu bat» izeneko txostenean (2013) adierazi zuenez, agintari fiskal asko zerga-iruzurraren modalitate bereziak aurkitzen ari direla. Haietako bat da, batetik, diru-sarrera gutxiago aitortzearena, salmenta elektronikoko kenduta, eta, aldi berean, gastu gehiago aitortzearena, faktura faltsuak erabilia. Horregatik, ELGAK zerga-administrazioei gomendatzen die konponbide teknologiko eraginkorrak ezartzea, saiheste-mota horiek eta zerga-iruzurrak detektatu eta ekiditeko.

Baina Batuz askoz ere gehiago da iruzur fiskalaren aurka borrokatzeko kontrol-mekanismo hutsa baino; izan ere, egungo tresna teknologikoak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiek jarduera ekonomikoak egiten dituzten zergapekoen beren betebeharrak betetzen laguntzeko eskaintzen dituzten aukerak erabiltzea ere badakar.

Horretarako, tresna teknologikoak jartzen ditu zergapekoen eskura, bete ahal ditzaten zerga-araudiak ezarritako erregistro-liburuak, zeinak eragiketa ekonomikoaren erregistro-liburu bakarrean bateratzen eta sinplifikatzen diren, eta zergapekoen ematen dizkie, hala eskatuz gero, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, balio erantsiaren gaineko zergaren, sozietateen gaineko zergaren eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren aitortzen edo autolikidazioen zirriborroak, aipatutako eragiketa ekonomikoaren erregistro-liburuan zergapekoek adierazitako datuetatik eta Zerga Administrazioaren eskura dauden gainerako elementuetatik abiatuta. Iruzur fiskalaren aurka borrokatzea, ihes fiskalera aukerak murriztea, zergapekoen beren betebeharrak laguntzeko mekanismoak indartzea eta aitortpenak eta autolikidazioak aurkezteko prozesuak sinplifikatzea dira Batuz sistemaren muinean dauden elementuak eta haien arteko lotura da, hain zuzen ere, gure inguruko administrazioetan ezarri diren edo ezartzeko bidean dauden antzeko tresnetatik bereizten dituen; horrek birtualtasun handiagoa ematen dio zergadun guztien tratuera ekitatiboan sakontzeko helburuan, bai haien betebeharrak formalen eta materialen kargari dagokionez, bai administrazio moderno batean zergen arloan dituzten eskubide guztiz ugari dagokienez, baina konplexuago ere egiten du haren ezarpena.

Berez, Batuz sistema ezartzea ez da soilik jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona fisikoen eta erakundeen zerga-betebeharrak betetzeko era aldatzea, ezta haien informazio-sistemak aldatzea, berrietzea edo eguneratzea ere; haratago doa, berekin baitakar paradigma-aldaketa bat zerga-ondoreak dituzten fakturazio-prozesuen eta ekonomia- eta kontabilitate-kontrolaren antolaketan, eta horrek esan nahi baitu enpresek eta langile autonomoek prozesu horiek egokitu egin behar dituztela, prozesuok eta erritimoak aldatu ere egin behar dituztela aholkularitza fiskaleko profesionalekin dituzten harremanetan, eta, azken finean, zergadunek egiten dituzten eragiketak erregistratzeko eta Zerga Administrazioarekiko betebeharrak formal eta materialak gauzatzeko eran. Bizkaiko Zerga Administrazioak zergadunekin dituen harremanen ikuspuntutik, 2020an eman zen nazioarteko joerekin bat egiteko aurrerapausorik esanguratsuenak, aukera ezarri zenean borondatez erabiltzeko ekonomia-jarduerak egiten dituzten zergadunen edo entitateen kudeaketa integraleko eredia, Batuz sistema, esan dugun moduan, hiru oinarriko elementu dituena: fakturazio-sistemetan tresna teknologiko berriak ezartzea, zergadunei neurri teknologiko aurreratuak erabiltzeko betebeharra ezarrita; ekonomia-jarduerak egiten dituzten pertsona guztientzat — fisikoak zein juridikoak — informazio-betebeharrak berdintzea, pertsona juridikoei eragiketa ekonomikoaren erregistro-liburu bat izateko betebeharra ezarrita, eta Bizkaiko Foru Ogasunak zergadunen eskura jartzea aitortzen zirriborroak, tributu-betebeharrak betetzen laguntzeko haien ekonomia-jardueren etekinak zergapetzen dituzten zerga garrantzitsuenen dagokienez. COVID-19aren pandemiaren ondorioz esparru ekonomikoan sortutako egoeraren testuinguruan, abenduaren 13ko 6/2021 Foru Arauak (ekonomia suspertzeko neurriak, BATUZ sistema borondatez aplikatzea sustatzeko neurriak eta beste zerga-aldaketa batzuk onartzen dituenak) aldaketak sartu zituen Batuz sistema ezartzeko egutegian, helburu honekin: Bizkaiko Foru Ogasunak BATUZ eredia ezartzearen alde egindako apustu tinkoaren eta hura aplikatzearen ondoriozko betebeharrak betetzeko zergadunek egin behar zuten egokitzapen-prozesuaren arteko oreka ezartzea, kontuan hartuta, bereziki, bizitzaren ari zen momentuaren konplexutasuna, zeinak konmugarri egiten baitzuen sistemari borondatez atxikitze aldia luzatzea eta atxikitze erabakitze zutenei, nola edo hala, konpentsazioen bat ematea.

Aipatutako foru-arauaren II. titulua aldaketak sartu zituen, haien bidez jarraitutasuna emateko, 2022ko urtarrilaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra arte, BATUZ sistemari lotutako betebeharrak borondatez betetzeko epeari; ondorioz, epe hori betetzea erraztu eta bermatu zen. Helburu horrekin, aldaketak egin ziren foru-arau hauetan: uztailaren 15eko 5/2020 Foru Araua, zeinaren bidez ezartzen baitira ekonomia-jardueren etekinak kontrolatzeko sistema integral bat eta tributu-betebeharrak betetzen laguntzeko neurriak eta, horretarako, aldatu egiten dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Araua, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Araua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Araua, Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Araua eta Bizkaiko Lurralde Historikoen Zergei buruzko Foru Arau Orokorra; abenduaren 5eko 11/2013 Foru Araua, Sozietateen gaineko Zergari buruzkoa, eta abenduaren 5eko 13/2013 Foru Araua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoa.

BATUZ sistemari borondatez atxikitzeak pizgarri izan zedin, foru-arau horretan konpentsazio berezia sortu zen, sistema horri lotutako betebeharrak borondatez betetzea modu ezetzazinean aukeratzen zuten zergadunek aplikatu ahal izango zutena, hain zuzen ere, baldin eta aplikazio-aldirako — zeina 2022an eta 2023an hasitako zergaldietara luzatuko baitzen — erregelamendu bidez berariaz ezartzen ziren baldintzak, forma eta epeak betetzen bazituzten. Era berean, horretarako sortutako erregistroan jasotzen zituzten zergadun horiek.

Kompentsazio berri horren helburua zen langile autonomoek, mikroenpresek eta enpresa txiki eta ertainek betebeharrak horiek borondatez bete zituztela sustatzea, eta sistema ezarri gero, eskubidea zegoen 2022ko eta 2023ko zergaldiei zegoien ekonomia-jardueren positiboan murrizketa bat aplikatzeko. Zergadun bakoitzari zerga-oinarriaren murrizketaren ehuneko bat aplikatuko zitzaion, betebeharrak borondatez betetzen hasten ziren datoren arabera, eta Batuz sistemari lehenago atxikitzen zitzaizkion zergadunei ehuneko handiagoa aplikatuko zitzaion.

Pizgarri fiskal berri horrek osatu egin zuen TicketBai! sistema —Batuz estrategiaren funtsezko elementuetako bat— ezartzea sustatzeko kenkaria, zeina jasota baitzegoen lehen aipatutako uztailaren 15eko 5/2020 Foru Arauan eta zeinaren indarraldia luzatu egin baitzen 2023ko amaierara arte, hasierako helburu berarekin: ezarritako betebeharrak berriak zirela-eta zergadunek zituzten kostuak arintzea.

Batuz sistemari borondatez atxikitze epealdiak amaitzen dauden honetan (epealdi horiek abenduaren 13ko 6/2021 Foru Arauan aurreikusita daude, ekonomia suspertzeko neurriak, BATUZ sistema borondatez aplikatzea sustatzeko neurriak eta beste zerga-aldaketa batzuk onartzen dituenak), Bizkaiko Foru Ogasunaren ustez Batuz sistemaren betebeharrak bete behar dituzten 90.000 zergadun ingurutik 15.000 inguruk aukeratu dute, modu ezetzazinean, betebeharrak horiek borondatez betetzea eta, horrenbestez, hark eskaintzen dituen aukera guztiak aplikatzen ari dira. Horren adibide da Batuz sistema borondatez ezarri duten zergadunek 245 milioi eragiketa baino gehiago erregistratu dituztela eragiketa ekonomikoaren erregistro-liburuan 2022ko urtarrilaren 1etik 2023ko ekainaren 30era bitartean. Batuz sistemari borondatez atxikitze zortzi epealdi ezartzeak lagundu du praktikan egiaztatzen sistemaren betebeharrak pixkanaka ezartzeko ikuspegiaren ontasuna, zergadunentzat, zerga-administrazioarentzat, haren aplikazioan esku



hartzten duten pertsona edo erakundeentzat, konponbide informatikoak, teknikoak edo ekipamendukoak garatzen dituzten erakundeentzat edo zerga-aholkularitza eskaintzen duten pertsona edo erakundeentzat.

Izan ere, Batuz sistemari borondatez atxikitzeko epealdian, Bizkaiko Foru Ogasunak etengabe elkarrizketak izan ditu zerga-aholkularitzako profesionalak ordezkatzen dituzten elkarteekin, jarduera ekonomikoak egin eta sistema ezarri behar duten zergapekoak ordezkatzen dituzten korporazioekin, eta sistema aplikatzeko irtenbide informatikoak garatzen dituzten erakundeekin, bai ezarpen-protzesuaren jarraipena egiteko, bai sistemaren beharrezan eta haren aplikazioaren arrakasta bermatzen duten irtenbide onenak une oro detektatzeko. Elkarrizketa horien ondorioz, agerian geratu da beharrezkoa dela sistema aplikatzeko eritmo mailakatuari eustea, batez ere, sistemaren dimentsioa edo jarduera ekonomikoaren ezaugarriak direla-eta sisteman sartzeko zailtasun gehien izan ditzaketen zergapekoek dagokienez.

Ikuspuntu horretatik, kontuan hartu behar da oraindik ere ia 75.000 zergadun sartu behar direla Batuz sisteman —pertsona fisikoak eta entitateak—, eta horiek guztiak ez daudela egoera berean, ez egin behar dituzten teknologia- eta antolaketa-aldaketen ondorioz, ezta beren eragiketen ekonomia- eta finantza-kontrolaren eta horretarako beharrezkoa den azpiegituraren esparruan duten abiapuntuko egoerari dagokionez ere. Era berean, guzti horiek ez dituzte berdin ukitu COVID-19aren pandemiak eta Ukrainako gerraren eragin ekonomikoek ekarritako ondorioz, mundu mailako hornidura-kateen disrupzioak, zenbait lehengaien, eta, zehazki, lehengai energetikoen prezioan egondako gorakada nabarmenak, denbora luzean altua izan den inflazioak eta finantza-agintariak hartutako erabakien ondorioz diruaren prezioa garestitu izanak.

Gure inguruko administrazioek Batuz sistema osatzen duten elementuetako bat, bakarra, hau da, ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak dokumentatzen dituzten erregistroen osotasuna, kontserbazioa, trazabilitatea eta bortxaezintasuna bermatzen dituen sistema informatiko baten erabilera ezartzean izandako esperientziak, ikuspegi konparatibotik zuhurtziaz jokatu behar bada ere —ezarpenak ez baitu konplexutasun-maila bera izan kasu guztietan—, agerian utzi du egokia izan daitekeela denboran zehar banatzea sisteman nahitaez sartu behar duten gainerako zergadunen sistemarako sarrera. Hartara, batetik, egokitzeko aukera emango zaie bai haien bai haien hornitzaile teknologikoek zein bestelakoei eta haien betebeharrak behar bezala betetzen laguntzen dieten aholkularitza juridikoko profesionalak, eta, bestetik, zerga-administrazioek zergadunek betebeharrak horiek betetzeko dituzten laguntza-premiei heldu ahal izango diete, bereziki, zaurgarrienek dituztenei, hau da, ekonomia-jardueretatik etekin ekonomikoak lortzen dituzten pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren zergadunek eta mikroenpresek eta enpresa txiki eta ertainek dituztenei.

Hori dela eta, foru-arau honen I. tituluak Batuz sistema nahitaez eta behin betiko ezartzeko prozesua antolatzeko xedapenak ezartzen ditu eta mantendu egiten du, gaitasun eta dimentsiorik handiena duten eta, hortaz, sistemaren behin betiko ezarpenari berme handiagoarekin hel diezaieketen zergadunentzat, Batuz sistemarekin lotutako betebeharrak 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera betetzeko derrigortasuna.

Baina, bestalde, behin betiko ezarpenean zailtasunik handienak izan ditzaketen zergadunei aukera ematen zaie hurrengo hilabeteetan sistemarekin lotutako betebeharrak benetan bete ditzaten, eta, horretarako, sisteman sartzeko lau epealdi ezartzen dira sisteman nahitaez sartu behar dutenentzat: jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona fisikoak, mikroenpresek eta enpresa txiki eta ertainak, barnean direla tamaina txikiko kooperatibak eta Sozietateen gaineko Zergatik salbuetsita eta partzialki salbuetsita dauden entitateak edo irabazi-asmorik gabeko entitateen zerga-araubide aplikatzen duten entitateak.

Sisteman nahitaez sartu behar dutenentzako egutegi horrek, sei hilean behingo lau epealdikoak, bat egiten du 2022an eta 2023an sisteman borondatez sartzeko epean gailendu den filosofiarekin (epe hori ezarri zuen abenduaren 13ko 6/2021 Foru Arauak, ekonomia suspertzeko neurriak, BATUZ sistema borondatez aplikatzea sustatzeko neurriak eta beste zerga-aldaketa batzuk onartzen dituenak), eta aukera ematen die hala nahi duten zergadunei Batuz sistemari lotutako betebeharrak betetzeko, modu ezeztazinean, 2022ko eta 2023koen pareko baldintzetan.

Zergadunak beren ezaugarrien arabera edo egiten dituzten jarduera ekonomikoaren arabera banatzean, kontuan hartzen dira, hain zuzen, lehen aipatu ditugun faktoreak eta faktore horiek zer zailtasun ekar ditzaketen, handiagoak edo txikiagoak, zenbait betebeharrak betetzeko beharrezkoak diren trantsizio-prozesuak amaitzeko orduan, hain zuzen, betebeharrak hauek: ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak dokumentatzen dituzten erregistroen osotasuna, kontserbazioa, trazabilitatea eta bortxaezintasuna bermatzen dituen sistema informatiko bat erabiltzea eta eragiketa ekonomikoaren erregistro-liburua egitea (emate-prestazioak eta liburua manu hauetan aipatzen dira, hurrenez hurren: Sozietateei buruzko Zergari buruzko 11/2013 Foru Arauaren 122 bis eta 122 ter artikuluetan, eta Pertsona Fisikoaren Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko Foru Arauaren 113 bis eta 114. artikuluetan).

Azkenik, 2024ra eta 2025era luzatzen da, Batuz sistemaren behin betiko ezarpena antolatzeko neurriekin bat etorritik, ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak dokumentatzen dituzten erregistroen trazabilitatea eta bortxaezintasuna bermatuko duen eta Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan eragiketa ekonomikoaren erregistro-liburu bat egiteko betebeharrak beteko duen sistema informatiko baten ezarpena sustatzeko kenkariaren aplikazioa (betebeharrak hori aurreikusita dago Pertsona Fisikoaren Errentaren gaineko Zerga eta Sozietateen gaineko Zerga arautzen dituzten foru-arauen xedapen iragankor banatan).

Bestalde, foru-arau honen II. tituluak Europar Batasunean fiskalitatearen arloko administrazio-lankidetzari buruzko Zuzentarauarekin lotuta egon diren azken aldaketen transposizioa egiten du Bizkaiko zerga-ordenamendura.

Fiskalitatearen arloko administrazio-lankidetzari buruzko 2011/16 (EB) Zuzentaraua aldatzen duen Kontseiluaren 2021eko martxoaren 22ko 2021/514 (EB) Zuzentarauaren (aurrerantzean, DAC 7) helburu nagusiak dira Europar Batasunean informazioa trukatzeko eta administrazio-lankidetzarako dagoen esparrua hobetzea, bai eta administrazio-lankidetzaren eremu berrietara zabaltzea ere, ekonomia digitalizazioak planteatzen dituen errorei aurre egiteko eta zerga-administrazioei zergak hobeto eta eraginkortasun handiagoz biltzen laguntzeko. Ildo horretan, informatzeko betebeharrak berri bat ezartzen da plataformak digitaletako operadoreei dagokienez.

Era berean, nazioartean ematen ari den informazioa trukatzeko mekanismoak indartzeko testuinguruan, kontuan hartu behar da Espainiak Agintaritza Eskudunen arteko Akordio Multilateral sinatu duela, ELGAREN eremuan plataformak digitalen bidez lortutako errentari buruzko informazioa automatikoki trukatzeko. Nazioarteko beste akordio batzuk ere sinatu ditu helburu bera lortzeko. Horrenbestez, akordio multilateral horren babesean jurisdikzio sinatzaileei informazio-trukea errazteko, plataformetako operadoreek saltzaileei buruz elkarlaneko ekonomia- eta noizbehinkako lanaren ekonomia-erlano informazioa komunikatzeko arauen eredu bat onartu da (aurrerantzean Arauen Eredua) ELGAREN baitan; eredu hori DAC 7 zuzentarauaren edukia oso antzekoa da, bereziki eranskineko arretak jokatzeak eginbeharrari buruzko arauen eta prozeduren edukia.

DAC 7 horren transposizioa egiteko eta Arauen Eredua barne-zuzenbidean ezartzeko, aldatu egin behar da Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorra, lege-mailako arau baten bidez arautzea gomendatzen duten gaietarako, eta erregelamendu-mailan sartutako berrietasunekin osatuko da transposizio hori.

Beste alde batetik, plataformetako operadoreen informatzeko betebeharrak berriaren araubideaz ezartzeaz gainera, DAC 7 zuzentarauaren transposizioaren ondorioz, ezinbestekoa da Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorra hainbat alderditan aldatzea. Hala, baterako ikuskapenen araubidea beste estatu kide batzuetako funtzionarioek Espainian duten presentziari eta Espainiakoei estatu horietan duten presentziari buruzko gai zehatz batzuk arautzen dira, bai eta aldebereko kontrolak ere.

Aurreko alde batera utzita, finantza-kontuei buruzko informazioa emateko eta arlo horretan arretak jokatzeak betebeharrari eta plangintza fiskaleko mugaz gaindiko mekanismoen erabilerrari buruzko informazioa emateko betebeharrari dagokienez, aldaketa puntual bat egin da araudian: behartuta dauden bitartekariak betebeharrak hau ezarri zaie: pertsona fisikoak den zergapeko interesdun orori jakinarazi behar zaio zergapeko horri buruzko informazioa Zerga Administrazioari emango zaiola eta 2011/16 (EB) Zuzentarauaren arabera transferituko dela.

Gainera, plangintza fiskaleko mugaz gaindiko mekanismoei buruzko informazioa emateko azken betebeharrak horri dagokionez, beharrezkoa da haren araubide juridikoa aldatzea, Espainiak informazioaren komunikaziorako estandar komuna saihesteko mekanismoekin eta lurraldez kanpoko egitura opakuekin lotutako informazioa automatikoki trukatzeari buruzko Agintaritza Eskudunen arteko Akordio Multilateral sinatu baitu, bai eta ELGAREN baitan informazioaren komunikaziorako estandar komuna saihesteko mekanismoei eta lurraldez kanpoko egitura opakuei heltzeko eman beharreko informazioa komunikatzeari buruzko Ereduko Arauak ere. Hala egin du Zerga Administrazioak behar duen informazioa izan dezan akordio horrek araututako informazioaren komunikaziorako estandar komuna saihesten duten mekanismoak eta lurraldez kanpoko egitura opakuek trukatu ahal

izateko. Halaber, plangintza fiskaleko mugaz gaindiko mekanismoei buruzko informazioa emateko betebeharrak eratorritako norbanakoen arteko betebeharrak aldatu egin behar dira Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren (Sala Nagusia) 2022ko abenduaren 8ko epaira egokitzeko. C-694/20 auzian eman da epai hori, eta deklaratu du Kontseiluaren 2011ko otsailaren 15eko 2011/16 (EB) Zuzentarauaren (fiskalitatearen arloko administrazio-lankidetzari buruzkoa da, eta 77/799/EEE Zuzentaria indargabetzen du) 8. bis ter artikulua 5. apartatua jasotako betebeharrak urratu egiten dituela Europar Batasuneko Oinarriko Eskubideen Gutunaren 7. artikulua, abokatuen kasuan. Zehazki, Kontseiluaren 2018ko maiatzaren 25eko 2018/822 (EB) Zuzentariak (DAC 6 izenez ezagutzen dena) ezarritako bertsio aldatuak urratzen du, zeinak sekretu profesionalaren babespean dauden bitartekariak behartzen baititu sekretu horren erabilera beren bezero ez diren gainerako bitartekarietara jakinaraztera. Jurisprudentzia hori jasotzeko, aldatu egin da plangintza fiskaleko zenbait mekanismoren informazioa emateko betebeharraren araubidea, eta kendu egin da komunikazio hori. Kanpoko funtzionarioak Espainian egoteko eta Espainiakoak kanpoan egoteko araubideari buruzko aldaketek dagokionez, komunikaziorako bitarteko elektronikoen bidez jarduketetan parte hartzeko ahalmena aitortzen da.

Komunikaziorako bitarteko elektronikoen bidez jarduteko aukera bera aitortzen da aldebereko kontroletan.

DAC 7 zuzentariak sartutako berritasun nagusietako bat izan da baterako ikuskapenak elkarren laguntzaren eremuan egiteko aukera. Egoera horren ondorioz, alderdi jakin batzuk arautu behar izan dira ikuskapen-jarduketan araubidean.

Hala, baterako ikuskapenaren kontzeptua definitzen da, eta baterako ikuskapenaren xede diren zergapekoen gainean Bizkaiko Foru Aldundiak ikuskatzeko eskumena duen kasuetan aplikatu beharreko berezitasunak ezartzen dira.

DAC 7 zuzentaria eta aipatutako Akordio Multilateralak direla bidez, informazio jakin bat emateko betebeharrak berri bat ezartzen da, eta «informazioa emateko betebeharrak duten plataformako operadoreek» bete beharko dute betebeharrak Espainiako zerga-administrazioari dagokionez. Arau-mailan, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean sartu den xedapen gehigarri berri baten bidez gauzatu da transposizioa. Xedapen gehigarri hori erregelamendu bidez garatuko da. Xedapen horrek informazioa emateko betebeharraren oinarriko jarraibideak ezartzen ditu, baita arretaz jokatze arauak eta prozedurak ere.

Era berean, betebeharrarekin lotutako eremu materialei dagokien zehapen-araubidea arautzen da, hau da, informazioa emateari, arretaz jokatzeari eta erregistroa egiteari dagokien araubidea. Horrez gainera, arretaz jokatze betebeharraren irregularitasun jakin batzuk egiaztatuz gero aplikatu beharko liratekeen neurriak onartzen dira.

Azkenik, zergapekoen dokumentazioa gordetzeko betebeharrak eta saltzaileen informazioa emateko betebeharrak aitortzen dira.

III. tituluari dagokionez, 5 artikulua dituzte, funtsean, aldaketa teknikoak eta orain indargabetuta dauden lege-xedapenen arau-erreferentziak eguneratzeko aldaketak baino ez dituzte sartzen.

Horrez gainera, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Foru Arauan salbuespen bat sartzen da Jardunbide Egokien Kode berriaren babesean egiten diren hipoteka-mailegu eta -kredituen kontratu-berritzeak formalizatzeko eskriturei dagokionez. Kode hori azaroaren 22ko 19/2022 Errege Lege Dekretuak ezarri zuen. Errege lege-dekretu horren bidez, Jardunbide Egokien Kode berri bat ezartzen da ohiko etxebizitzaren gaineko hipoteka-maileguen interes-tasen igoera arintzeko, aldatu egiten da martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege Dekretua (baliabiderik gabeko hipoteka-zordunak babesteko presazko neurriak buruzkoa) eta hipoteka-maileguen merkatua hobetzeko beste egitura-neurri batzuk onesten dira.

Era berean, foru-arau bihurtu da Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren Erregelamenduan egindako aldaketa, zeina zenbait zerga-arauditan aldaketak sartzen dituen Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 24ko 9/2023 Foru Dekretuaren bidez egin baitzen.

Aldaketa horren helburua zen barne-araudia Batasunaren ordenamendura egokitzea, Europar Batasuneko estatu kideetako egoiliarrek edo Europako Esparru Ekonomikoko estatuakoei zerga horren betebeharrak dagokionez, zerga-administrazioaren aurrean Espainian ordezkari bat ez izendatzeko. Europako Esparru Ekonomikoko estatuakoei egoiliarren kasuan, hori betetzeko estatu kideek zerga-informazioa trukatzeko eta zerga-bilketarako elkar laguntzari buruzko araudia izan behar zuten.

**Gipuzkoako  
Aldizkari  
Ofiziala**



**Boletín  
Oficial de  
Gipuzkoa**


**EZ DAGO ZERGA-ARAUARIK ARGITARATUTA**

**EHAA**



**EUSKAL HERRIKO  
AGINTARITZAREN ALDIZKARIA**

**EZ DAGO ZERGA-ARAUARIK ARGITARATUTA**



# NAFARROAKO Aldizkari Ofiziala

## NA — 229 zk. — 2023/11/03 — (BESTE BATZUK) —

70/2023 FORU AGINDUA, URRIAREN 27KOA, EKONOMIA ETA OGASUNeko KONTSEILARIAK EMANA, ZEINAREN BIDEZ ONESTEN BAITA 730 ORDAINKETA-GUTUNAREN EREDUA, ERANTZUKIZUNA DERIBATZEKO PROZEDURETAN ZEHAZTUTAKO ZORRAK ORDAINTZEKO.

Uztailaren 2ko 177/2001 Foru Dekretuak onetsitako Nafarroako Foru Komunitateko Diru-bilketaren Erregelamenduaren 12. artikulua arautzen du erantzukizuna deribatzeko deklarazioaren prozedura, eta ezartzen du erantzule deklaraturako pertsona edo entitate zordunak Nafarroako Foru Komunitateko Diruzaintzan sartu beharko duela deribatutako zorra, artikuluko horretan ezarritakoaren arabera.

Aipatu erregelamenduaren 31. artikulua eta hurrengoek arautzen dituzte ordainketa egiaztagiriak, eta horien artean daude, hain zuzen, ordainketa-gutunak.

Diru-bilketaren kudeaketa egoki eginen bada, beharrezkoa da ordainketa-gutunaren eredu berri bat ezartzea erantzukizuna deribatzeko prozeduretan zehaztutako zorrak ordaintzeko, eta publikitatea ematea, orok jakin dezan.

## NA — 231 zk. — 2023/11/07 — (TLO) —

17/2023 FORU LEGEA, URRIAREN 26KOA, ZEINAREN BIDEZ TRIBUTUEI BURUZKO ABENDUAREN 14KO 13/2000 FORU LEGE OROKORRA ALDATZEN BAITA, KONTSEILUAREN 2021eko MARTXOAREN 22KO 2021/514 (EB) ZUZENTARAUAREN TRANSPOSIZIOA EGINEZ (ZUZENTARAU HORREK FISKALITATEAREN ARLOKO ADMINISTRAZIO LANKIDETZARI BURUZKO 2011/16/EB ZUZENTARAU ALDATU ZUEN).

Kontseiluaren 2021eko martxoaren 22ko 2021/514 (EB) Zuzentarauak (aurrerantzean, DAC 7), fiskalitatearen arloko lankidetzaren administratiboari buruzko 2011/16/EB Zuzentaraua aldatzen duenak, helburu nagusi hauek ditu: Europar Batasunean informazioa trukatzeko eta lankidetzaren administratiborako dagoen esparrua hobetzea, bai eta lankidetzaren administratiboaren beste eremu batzuetara zabaltzea ere, ekonomiaren digitalizazioak planteatzen dituen erronkei heltzeko eta zerga administrazioei zerga-bilketa modu efizienteagoan egiten laguntzeko. Horretarako, informazioa emateko betebeharrak berri bat ezartzen da plataforma digitalen operadoreei dagokionez.

Era berean, DAC 7-ren transposizioak honako hau arautzeko beharra sortzen du: baterako ikuskapenaren araubidea, Europar Batasuneko beste estatu batzuetako funtzionarioek Espainian –eta alderantziz– presentzia izateari buruzko gai zehatz batzuk, eta aldebereko kontrolak. Arlo honetako foru araudiak Tributuei buruzko Lege Orokorrean ezarritakora igortzen duenez, ulertuko da lurralde erkideko araudian funtzionarioez eta zerga-administrazioaz egiten diren aipamenak Nafarroako funtzionarioez edo, hala badagokio, Zergen Foru Administrazioaz eginak direla, Hitzarmen Ekonomikoan ezarritako eskumen eta eskudantzien arabera.

Bestalde, plangintza fiskaleko mugaz gaindiko mekanismoei buruzko informazioa emateko betebeharrari dagokionez, aldaketa puntual bat egiten da foru araudian: betebeharrak duten bitartekariak pertsona fisikoak den zergapeko interesdun orori jakinarazi beharko diete ezen zergapeko horri buruzko informazioa zerga administrazioari emanen zaiola eta 2011/16/EB Zuzentarauari jarraikiz transferituko dela.

Gainera, plangintza fiskaleko mugaz gaindiko mekanismoei buruzko informazioa emateko azken betebeharrak horri dagokionez, beharrezkoa da haren araubide juridikoa aldatzea, Agintaritzaren Eskudunen arteko Akordio Aldeaniztuna sinatu baitu Espainiak, informazioa komunikatzeko estandar komunaren eta lurraldez kanpoko egitura opakuen informazioa saihesteko mekanismoei buruzko informazioa automatikoki trukatzearen gainekoa, bai eta, ELGaren barruan informazioa komunikatzeko estandar komunaren eta lurraldez kanpoko egitura opakuen informazioa saihesteko mekanismoei heltzeko, informazioaren nahitaetzeko komunikaziorako haren ereduak ere. Horren helburua da zerga administrazioak behar den informazioa izatea informazioa komunikatzeko estandar komunaren eta lurraldez kanpoko egitura opakuen informazioa saihesteko mekanismoen trukea, akordio horretan arautzen dena, egin ahal izateko.

Era berean, partikularren arteko betebeharrak, plangintza fiskaleko mugaz gaindiko mekanismoei buruzko informazioa emateko betebeharrak horrek eragindakoak, aldatu egin behar dira Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak (Sala Nagusia) C-694/20 auzian 2022ko abenduaren 8an emandako epaiaren ondorioz. Epai horrek deklaratu duenez, abokatuen kasuan Europar Batasunaren Oinarriko Eskubideen Gutunaren 7. artikulua urratzen du Kontseiluaren 2011ko otsailaren 15eko 2011/16/EB Zuzentarauak (Kontseiluaren 2018ko maiatzaren 25eko 2018/822 (EB) Zuzentarauak aldatutako bertsioan, hau da, DAC 6 izenez ezagutzen dena), zehazki, haren 8 bis ter artikuluko 5. apartatuan jasotako betebeharrak –sekretu profesionalaren babespean dauden bitartekariak ezartzen zaiena, beren bezero ez diren gainerako bitartekariak sekretu horren erabilera jakinarazteko–. 2011/16/EB Zuzentaraua fiskalitatearen arloko lankidetzaren administratiboari buruzkoa da eta 77/799/EEE Zuzentaraua indargabetzen du. Jurisprudentzia hori jasotze aldera, aldatu egin da plangintza fiskaleko zenbait mekanismoei buruzko informazioa emateko betebeharraren araubidea.

## NA — 243 zk. — 2023/11/23 — (PFEZ, SZ, BEZ) —

234/2023 FORU DEKRETUA, URRIAREN 31KOA, HONAKO ARAU HAUEK ALDATZEN DITUENA: PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGAREN ERREGELAMENDUA, MAIATZAREN 24KO 174/1999 FORU DEKREUAREN BIDEZ ONETSIA; SOZIJETATEEN

GAINEKO ZERGAREN ERREGELAMENDUA, ABENDUAREN 20KO 114/2017 FORU DEKREUAREN BIDEZ ONETSIA; BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGAREN ERREGELAMENDUA, MARTXOAREN 8KO 86/1993 FORU DEKREUAREN BIDEZ ONETSIA; 8/2010 FORU DEKRETUA, OTSAILAREN 22KOA, IDENTIFIKAZIO FISKALEKO ZENBAKIA ETA HARI LOTUTAKO ZENBAIT ERROLDA ARAUTZEN DITUENA; 50/2006 FORU DEKRETUA, UZTAILAREN 17KOA, BITARTEKO ELEKTRONIKO, INFORMATIKO ETA TELEMATIKOEN ERABILERA ARAUTZEN DUENA NAFARROAKO FORU OGASUNAREN ESPARRUAN, ETA 177/2001 FORU DEKRETUA, UZTAILAREN 2KOA, NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO DIRU-BILKETA ERREGELAMENDUA ONESTEN DUENA.

Dekretu honen barruan, lehenengo artikuluan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZ) Erregelamenduaren aldaketa jasotzen da.

Lehenik eta behin, haren 2. eta 3. artikuluetan Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea arautzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legeari buruz egiten diren aipamenak zuzentzen dira. Arau hori indargabetu zuen 2/2023 Legegintzako Foru Dekretuak, maiatzaren 24koak, zeinaren bidez onesten baita fundazioen eta irabazi asmorik gabeko bestelako entitateen zerga araubide bereziko xedapenen eta mezenasgorako zerga pizgarrien testu batagina. Horregatik, artikuluko horiek aldatu dira, indarra duen arauaren aipamena eransteko.

Bestalde, eguneratu egin dira garraio gastuetarako eta ostalaritza establezimenduetako ohiko mantenu eta egonaldi gastuetarako enpresek langileei ordaintzen dizkieten zenbatekoetatik kargatik salbuesten direnak. Nafarroako Gobernuak bere langileei ordaintzen dizkien kilometrajeko dietei %9,375ko iguera aplikatzearen ondorioz, kilometroko 0,32 eurotik 0,35 eurora pasatzen da. Portzentaje bera aplikatuko zaie gainerako kontzeptuei, PFEZaren Erregelamenduaren 8.A) 5 artikuluan xedatutakoa betez.

Era berean, erregelamenduaren zenbait artikuluren testua egokitzten da, Zergari buruzko Foru Legea aldatzen zuen abenduaren 28ko 36/2022 Foru Legean (zenbait zerga eta tributu neurri aldatzen zituen) onetsitako aldaketak jasotzeko. Alde batetik, aitortu beharra ezartzen duen lan etekinen atalaseari dagokionez, eta etekin horiei dagokien atxikipen taulari dagokionez. Beste alde batetik, inbertsio-funts edo inbertsio kotizatuko sozietateetat (ETF ingelesez) hartzen diren inbertsio kolektiboko instituzioetako partaidetzen edo akzioen itzulketatik edo transmisioetik heldu diren ondare gehitzeen gaineko atxikipenetik salbuesteari dagokionez, kotizatzen duten merkatu nazionala edo atzerriarra edozein dela ere. Azken aldaketa hori Sozietateen gaineko Zergaren (SZ) Erregelamenduan ere jaso da, bigarren artikuluan.

Gainera, informazio betebeharrak jasotzen dira, edo lehendik zeudenak aldatzen dira, PFEZari buruzko Foru Legearen testu bateginean aurreikusitako araudira egokitzeko:

-Pentsio funtsen erakunde kudeatzaileek zerga informazioari dagokionez dituzten betebeharrak ezartzen zaizkie banakako pentsioekiko produktu paneuroparren sustatzaileei.

-Bizi aseguruari buruzko informazioa emateko betebeharrak aldatu da, erreskate eskubiderik gabeko bizi aseguruari buruzko aipamenak jasotzeko, Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen 17. artikuluan aurreikusitako araeekin bat etorritz.

-"Plataforma operadoreentzat" informazioa betebeharrak berria ezartzen da, Kontseiluaren 2021eko martxoaren 22ko 2021/514 (EB) Zuzentarauaren transposizioetik sortua, (haren bidez aldatu zen 2011/16/EB Zuzentzaraua (DAC 7), fiskalitatearen arloko administrazioen arteko lankidetzari buruzkoa).

Azkenik, jarduera artistikoetatik sortzen diren etekinen gaineko atxikipenak murrizten dira, lanaren etekin gisa kalifikatu nahiz jarduera ekonomikoan etekin gisa kalifikatu, baldin eta hartzailearen jarduera nagusia hori bada, eta etekin horiek kopuru jakin batzuetatik gorakoak ez badira. Era berean, aldaketa tekniko bat egiten da jabetza intelektualetik eratorritako etekinen atxikipenei dagokienez, erregulazioa artikuluko bakar batean bateratuz.

Bigarren artikulua, ETFen esparruko atxikipen salbuespenari buruz aipatu den aldaketaz gain, SZren Erregelamenduan eguneratzen du salbuespen bat: sozietateek eta balore agentziek etorkizuneko, aukeren eta bestelako tresna eratorrien bigarren mailako merkatu ofizialeko kide gisa jarduteko eraturako bermeen kontraprestazioan jasotzen dituzten interesen gainean atxikipena edo konturako sarrera egin beharri dagokiona. Eguneratze hori justifikatzen da azken urteotan baloreen merkatuak eta gainerako finantza tresnak osatzen dituzten azpiegituren erregulazioan, bai Europar Batasuneko Zuzenbidean, bai antolamendu nazionalan, izan diren araudi aldaketengatik.

Aurrekoaz gainera, 49. artikulua indargabetu da, ez baitu zentzurik, abenduaren 29ko 21/2020 Foru Legeak Zergari buruzko Foru Legearen 69.2 artikulua kendu ondoren, eta III. titulua berrantolatatu da, ez baita beharrezkoa kapitulutan zatitzea, eta titulu horretan zuzenean sartuko dira 41.tik 48.era bitarteko artikulua.

Hirugarren artikulua aldatzen du Balio Erantsiaren gaineko Zergari (BEZ) buruzko Erregelamendua.

Erregelamenduz garatu dira Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Legean urtarrilaren 25eko 1/2023 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez sartutako aldaketak.

Lehenik eta behin, aduanei buruzko araudiaren arabera esportatzaile jardueran ari diren pertsonen, ondasuna saltzen edo erosten dutenak izan gabe, egiten dituzten ondasun esportazioei aplikagarri zaizkien salbuespenen dagokienez, bai eta aldi baterako gordailu egoeren eta aduana eta zerga araubideen erregulazio berriari dagokionez ere.

Bigarrenik, kreditu kobrazinen kasuan zerga oinarria aldatzeari dagokionez. Zehazki, beste estatu kide bateko organo juridikozional batek deklaraturako kaudimengabezia prozesuak jasotzen dira, eta, gehigarri gisa, erreklamazio judizialaren edo notario-errekerimenduaren ordeztze beste edozein bitarteko erabilteza aurreikusten da, zordunari kobrantzaren erreklamazioa egin zaiola modu frogagarrian erakusten badu.

Hirugarrenik, higiezin errentamendu zerbitzuen prestazioak, zergari lotuak eta salbuetsi gabeak, hartzen dituen subjektu pasiboa inbertsio erregelaren aplikaziotik kanpo uztea jasotzen da, eta orobat, higiezin errentamenduan bitartekaritza zerbitzuen prestazioen hartzailea ere, bi kasuetan, zerga aplikatzen den lurraldean ezarrita ez dauden pertsonen edo entitateen egiten badituzte.

Era berean, erregelamendu bidez garatzen dira Zergari buruzko Foru Legearen 111 quater artikulua (ekainaren 21eko 3/2023 Legegintzako Foru Dekretuak aipatu Foru Legean sartu zuen artikuluko hori berriki) ordainketa zerbitzuen hornitzaileei ezartzen dizkien betebeharrak. 53 ter artikuluko berriki erregistratzeko betebeharrak garatzen du eta 70 bis artikuluko berriki informazioa emateko betebeharrak garatzen du.

Gainera, apirilaren 4ko 249/2023 Errege Dekretuak Estatuko araudian egindako aldaketarekin bat etorritz, Balio Erantsiaren gaineko Zergan jaulkitako fakturen erregistro liburuetan gaitzen da zerga oinarrian eta kuotan egindako aldaketen erregistroa, haietarako faktura zuzentzailek egin beharrik ez dagoenean, esate baterako, zerga oinarria etekin tartearan arabera zehazten den araubide berezietatik eratorritako kuota doikuntzak. Era berean, dokumentatuta ez dauden oharpenak faktura zuzentzailean bidaltzeko epea ere arautzen da.

Azkenik, erregelamenduaren zenbait artikuluko eguneratu dira, Zergari buruzko Foru Legearen edukira egokitzeko, eta araudien aipamen batzuk zuzendu dira. Azpimarratzekoa da dirulaguntzak kenkariaren hainbanaketaren izendatzailean sartzeari buruzko aipamena kendu dela, eta orobat, eguneratu dela araubide erraztuan dauden garraio sektoreko subjektu pasiboek jasandako BEZaren itzulketaren ondorioetarako garraio bideen gainean aplikatu beharreko araudi europarraren aipamena.

Laugarren artikulua aldatzen du identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ) eta horri lotutako errolda zehatz batzuk arautzen dituen Foru Dekretua.

Aldatu egin da, establezimendu iraunkorrik gabe Espainian jarduten duten entitate ez-egoiliarren kasuan, ordezkariaren helbideari buruzko aipamena kentzeko; izan ere, Europako araudiaren arabera, ez daude beharturik ordezkari bat izendatzera.

Bestalde, IFZ errebokatze beste kasu bat jaso da, hau da, entitateek beren kontuak edo kontabilitateko agiriak erregistroan lau ekitaldi jarraituetan aurkezteko betebeharrak ez dutela bete egiaztatzen den kasua, eta kendu egiten da IFZ birgaitzeko kapital sozialaren titulartasuna aldatzeko eskakizuna.

